

ARRAZUA-UBARRUNDIA

2066

Udalerriaren izena euskal grafiara egokitzea.

Udalbatzak, 2012ko martxoaren 19ko ohiko bilkuran, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz erabaki zuen udalerriaren izena euskal grafiara egokitzea. Horren helburua da azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 10. artikuluan ezarritakoa betetzea. Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamena onartu da, hots, Arratzua-Ubarundia.

Espedientea hogeita hamar egun baliodunez jarriko da jendaurrean, interesdunek egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Dura, 2012ko apirilaren 2a.- Alkatea, RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

BASTIDA

2061

Kultura Etxeko Arautegiaren aldaketa behin betiko onartzea.

Korporazioaren udalbatzak, 2012ko otsailaren 14an egindako osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ondoren adierazten den zerga ordenantzen aldaketari: Kultura Etxeko Arautegia.

Aldaketa hori 2012ko otsailaren 24ko ALHAOn argitaratu zen. 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea hogeita hamar egunez jarriko da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak eta oharrak aurkez ditzakete.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean, ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da indarrean jar dadin:

- 9. artikuluan, "10 egunekoa" dioen lekuan, hau jarri behar du aurrerantzean: "5 egunekoa"
- 13. artikuluan 6. idatz zatian, "Udal aretoen irekitzeko eta ixteko ordutegia betetzea" dioen lekuan, hau jarri behar du aurrerantzean: "Udal aretoen irekitzeko eta ixteko ordutegia betetzea: 9:00-20:00"
- 14. artikuluan, "Kultur Etxeko tabernan izan ezik, gainerako instalazio guztietan ezin da ez erre ez janaririk edo edaririk kontsumitu" dioen lekuan, hau jarri behar du aurrerantzean: "Kultura Etxeko instalazio guztietan ezin da ez erre ez janaririk edo edaririk kontsumitu, ez eta tabernan ere".
- 19. artikuluar 5. idatz zatia eransten zaio; honela dio: sare elektrikoa erabili.
- 20. artikuluar bigarren paragrafoa eransten zaio; honela dio: Neguko ordutegia: 17:00- 20:00, udako ordutegia: 10:00-13:00.

- 25. artikuluan hau eransten da: "... edo, hala badagokio, arduradunak..."

- 27. artikuluan, "5 eta 12 urte bitarteko" dioen lekuan, hau jarri behar du aurrerantzean: "3 eta 12 urte bitarteko".

- 43. eta 46. artikulua kendu egiten dira.

- Aldatu egiten da azken xedapen bakarra, eta "Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera jarriko da indarrean..." dioen lekuan, ulertu behar da hau xedatzen duela: "ALHAOn argitaratu eta gero jarriko da indarrean. 2012ko uztailaren 31tik aurrera".

Bastida, 2012ko martxoaren 30a.- Alkate-lehendakaria, IGNACIO GIL ORIVE.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

2066

Adaptación de la denominación del Término Municipal a su grafía euskaldun.

El Ayuntamiento en Pleno en su Sesión Ordinaria celebrada el día 19 de marzo de 2012 adoptó con la mayoría absoluta del número legal de miembros el acuerdo de adaptar la denominación del Término Municipal a su grafía euskaldun a fin de cumplir con lo establecido en el artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, estableciéndose el mismo a propuesta de la Viceconsejería de Política Lingüística como Arratzua-Ubarundia.

El citado expediente se somete a información pública por el plazo de treinta días hábiles a fin de que los interesados puedan alegar lo que estimen conveniente.

En Durana a 2 de abril de 2012.- El alcalde, RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

LABASTIDA

2061

Aprobación definitiva de modificación de Reglamento Casa de Cultura.

Este Ayuntamiento, en sesión del Pleno de la Corporación, celebrada el día 14 de febrero de 2012 previa deliberación, aprobó provisionalmente la modificación de la siguiente Ordenanza: Reglamento Casa Cultura.

Habiendo sido esta publicada en BOTHA con fecha de 24 de febrero de 2012 y conforme lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, los expedientes expuestos al público en la secretaría municipal durante el plazo de treinta días a contar desde el siguiente al de la publicación del anuncio en el BOTHA, a efectos de que los interesados puedan revisarlos y presentar las reclamaciones u observaciones que estimen oportunas.

No habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de exposición al público,

Atendiendo a lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de régimen local, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor:

- En artículo 9 donde pone "10 días" debe poner en adelante "5 días"
- En artículo 13, apartado 6º donde pone "cumplir el horario de apertura y cierre del servicio de las dependencias municipales" debe poner en adelante "cumplir el horario de apertura y cierre del servicio de las dependencias municipales de 9:00 a 20:00 horas"
- En artículo 14, donde pone "excepto en el Bar adscrito a la Casa de Cultura" debe poner en adelante "incluido en Bar adscrito a la Casa de Cultura"

- En artículo 19 se añade un apartado 5º, cuyo contenido responde a: utilizar la red eléctrica.

- En artículo 20 se añade un segundo párrafo, cuyo contenido responde a: Horario invierno 17:00 a 20:00 horas; horario de verano 10:00 a 13:00 horas.

- En artículo 25 se añade "o en su caso el responsable"

- En artículo 27 donde pone "desde los 5 a los 12 años" debe poner en adelante "desde los 3 a los 12 años"

- Los artículos 43 y 46 se suprimen

- Se modifica la disposición final única, y donde pone "entrará en vigor a partir de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava..." deberá entenderse que se establece "entrará en vigor una vez publicado en el BOTHA a partir del mes del día 31 de julio de 2012"

Labastida, 30 de marzo de 2012.- El alcalde-presidente, IGNACIO GIL ORIVE.